

I ELHEKETA

- ① Zer erran nahi du "Aiseria berriek"
- ② Zertako samurtu ziren Harrixuri era urtebi.
- ③ Egun bero batez. Ortzantza bustekotan.

II INTZAUR ONDOA
2

Bainan horra nun lur huntako aiseria berriek bake eta zorion gozo hori mustupilkatu behar zuten egun batez, duela bortz urte abantxu egunez egun. Intzaurra bizi zen hesia, betidanik Urtebikoen gain zen. Horiek moztan zuten hesia, ziloak hesten, batzuetan elhorri zuri batzu landatzen han hemenka... Fun-tsean, Urtebiko hesia zen...

Beraz, Urtebiko Joanesek, lanaren erreteko eta alor inguruen poxi bat gurbiltzeko, hesia errotoik atara zuen eta alantre xixpadunez egin zerradura, bere alderdian hesten zuela intzaur ondoa. Hain ziren adixkide, Joanes eta Josep nun harek ez baitzuen galdatu auzoari zer egin intzaur ondoaz... Ez zuen hor deus gaixtakeriarik egin nahi izan, bainan, gizon-ek bezala, bere baitan bizi zuen jabetzeko nahi-riaren deubrukaria. Eta jabetuz geruz urhats bat gibelerat ez egin nahi.

Eta horra nun, dretxo berekin, Harrixurik dion: "Zertako da intzaur-ondo hori Urtebikoa eta ez enea? Orai arte hiruna gaitzurutara emaiten zauzkun. Eta orai intzaur ondoaz jabetzen bada, itzala eta hiru gaitzuruak utzirik ere, ni naiz galtzetan beti... Enca duk intzaur ondo hori!..."

Horra zertarik samurtu ziren bi auzoak. Etzuten ez batek ez bertzeak horgo intzaurren biltzeko lanik. (Bela, pika, garratoin eta urtxintzak ederki goxatzen ziren anartean Jainkoaren lorian...



Bortz urteren buruan oraino intzaur ondoak, beti zahartzen ari izana gatik, uzta ederrenaren itxura erakusten zuen bertze uztek bezala urte hartan. Bainan gure auzoak beti samur...

Egun heetan herri guziko belharrak egintxeak ziren, bainan Urtebik gaineko pentze guzia lurtean zuen, zabal-zabala. Goizean, leher egioko bero dorren pean, Joanes, Joanaño eta Maitek, saka-saka, jharrerri emana zioten azken higi aldi bat eskuz, untsa baino hobekiago egin nahiz, bazka gizen horiek izan ziten ezinago sano eta usain onekoak. Beren denbora guzia hartzen zuten azken belharrak zirrakotan...

Bazkal ondoan, aroari soño bat egin eta, etzan aldi poxi baten egiterat joan ziren guziak. Zeruak ez zuen itxura gaixtorik, hantxet lanho dilinda txar batzuen gatik...

Lo kixkaño bat egin orduko, kirrin-karran hasten da sabaiko leihoa. Kurrinka hori hauteman orduko Joanesek ohetik jauzi egiten du eta kanporat joaten. Aspaldian ikasia zuen kurrinka horrek zer erran nahi zuen... Zerua beltzatzen ari da.

III ADITZ IKASKUNTZA.

- 31. Moztan zuten 32 Hain ziren adixkide
- 33. Emaiten zauzkun 34. Emana zioten.

31. UKAN. Indicatif imparfait.

Nik nuen	= je l'avais.	} Objet
Hik huen	= tu l'avais	
Zuk zinuén	= vous l'aviez	
Harek zuen	= il l'avait	
Guk ginuen	= nous l'avions	
Zuek zinuén	= vous l'aviez	} Sin. -gu. -lier
Heiek zuten	= ils l'avaient	

32. IZAN. Indicatif imparfait.

Ni nintzen	= j'étais
Hi hintzen.	= tu étais
Zu zinen	= vous étiez
Hura zen	= il était
Gu ginen	= nous étions
Zuek zinguten	= vous étiez
Heiek ziren	= ils étaient.

33 UKAN. Conjugaison à double complément. Indicatif. Imparfait

GURI = à nous.

Zuk zinaukun	= vous nous l'aviez	} O S C.I. P.
Harek zaukun	= il nous l'avait	
Zuek zinaukuten	= vous nous l'aviez	
Heiek zaukuten	= ils nous l'avaient	
Zuk zinauzkigun	= vous nous les aviez	
Harek zauzkigun	= il nous les avait	
Zuek zinauzkiguten	= vous nous les aviez	
Heiek zauzkiguten	= ils nous les avaient.	
Emaiten zinaukun	= vous nous le donniez. Emaiten	